

BALDINTZA OROKORRAK

1. Xedea eta aplikazio-eremua

Ibilkari ibilgailuen erabilera partekatuko zerbitzuaren Baldintza Orokor hauek, aurrerantzean, 'BO', edozein ibilgailu-erreserba arautzen dute, eta bazkide erabiltzaileen, hemendik aurrera erabiltzaileak, eskura ibilgailu-flota bat jartzen dute, Car Sharing sistemaren bidez denbora jakin batez erabil dezaten.

Ibilkari ekimena 'Eusko CarSharing Elkarte - Car Sharing-a Euskadin bultzatzeko Elkarte' bultzatutakoa da. Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, IFZ - G95559316 duena, eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Euskadiko Elkarreei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean (Eusko Legebiltzarrak onartua eta sortua) ezarritakoa betez inskribatuta dago. Eta Mugikortasun Kudeaketa Zerbitzuak - Servicios de Gestión de Movilidad, S.L. legezko enpresaren bitartez eratua dago, B75001750 IFK zenbakiarekin, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta 2009ko ekainaren 5ean, 2434. liburukia, 88. folioa, SS-31738-ko zk orria. 1º. inskripzioa.

Zerbitzuaren erabiltzaileari BOak irakurtzea komeni zaio zerbitzuan alta eman aurretik, zerbitzua erabiltzeak berekin baitakar Baldintza Orokorrei Ibilkari-k bere www.ibilkari.com webgunean argitaratutako bertsioaren xedapenak isilbidez atxikitzea eta nahitaez betetzea.

2. Zerbitzua erabiltzeko betekizunak

25 urtetik gorako edozein pertsonak eman dezake alta, baldin eta Espainian baliozko eta indarrean dagoen gidabaimena badu, eta gutxienez 2 urteko antzinatasuna eta 6 puntuko saldoa izan beharko du, gutxienez, gidabaimenean.

Pertsona hori Europako herrialde batekoa bada, dagokion gidabaimen nazionala aurkeztu beharko du, Europako, Suitzako eta Erresuma Batuko esparru ekonomikorako baliagarria (gehienez ere sei (6) zigor-puntu).

Beste herrialde batzuetatik badator, nazioarteko gidabaimen baliiodun bat aurkeztu beharko du (argazki batez gain), edo gaztelaniaz idatzita dagoen baimen bat, edo zinpeko interpreteek, Espainiak atzerrian dituen kontsulek, baimena eman duen herrialdeko Espainiako kontsulek edo horretarako baimena duen erakunde edo entitate batek egindako itzulpen ofizial batekin batera doan baimen bat. Agiri horiekin batera, jatorrizko herrialdeko



gidabaimena aurkeztu beharko da, gidabaimenaren gutxienez 2 urteko antzintasunarekin.

Bizileku-baimena izanez gero, Espainian egoitza normalizatua lortu eta sei hilabete igaro ondoren, gidabaimena Espainiako baliokidearekin trukatu edo ordezkatu beharko da.

Halaber, ezin bada gidabaimena lortu, jatorrizko herrialdearekin hitzarmenik ez dagoelako, Espainiako beste gidabaimen bat lortu beharko du.

Gure zerbitzuetara sartu ahal izateko, nahitaezkoa eta ezinbestekoa da izen emate-inprimakia betetzea, hau da, Erabiltzailearen Gidan eta BOetan ezarritako baldintza eta xedapenak onartu eta nahitaez betearaziz.

Ibilkari-k bere borondate askez erabakiko du, erregistro edo izen-ematea egin duenaren onarpena, zerbitzuaren erabiltzaile bihur dadin, edota zeini izaera hori ukatzen zaion.

Interesdunari zerbitzuan izen-emate erregistroa egiteko, Ibilkarik, unean-unean behar diren aldez aurreko baliozkotzeak egingo ditu.

Horrez gain, izen-emate prozesuan informazio zuzena eta osoa eman behar da, eta onartu egin behar da bere kontua uneoro eguneratuta izatea. Ibilkari-ri jakinarazi beharko zaio posta elektronikoz info@ibilkari.com helbidera edo +34 689 514 885 telefono-zenbakira hots eginez (Arreta Bulegoa, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:00etara).

Izena-ematean, interesdunak gidabaimenaren kopiak, NANaren, AIZaren edo pasaportearen kopia eta bankuko agiri bat aurkeztu beharko ditu, ordainagiriak helbideratuko zaizkion banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzeko (adibidez, libretaren lehen orrialdea, banku-txekea, etab.). Banku-kontuaren titularra ez bada, dagokion baimena egiaztatzen duen dokumentu bat aurkeztu beharko da, kontuaren titularrak behar bezala sinatuta.

Interesdunak ez du banku-helbideratzearen kontu pertsonal bat baino gehiago izango, Ibilkarik berariazko baimena eman ezean.

Probaldian eta interesdunak zerbitzua noizbehinka erabili nahi badu, kreditu edo zordunketa-txartel bat aurkeztu beharko du, zerbitzuaren erabilerak ordaintzeko. Txartelaren datu osoak ez dira inoiz eskuragarri izango Ibilkari-arentzat.

EBk merkataritza elektronikoaren arloan eskatzen dituen segurtasun-bermeekin kobratzeko sistema ezarriaz.



Interesduna onartzen denean eta ordainketa-txartelari alta ematen zaionean sistemak diru-kopuru txiki baten erreserba egingo du, txartelaren baliozkotasuna egiaztatzeko protokolo gisa. Gehienez ere hogeita hamar (30) eguneko epean, zenbateko hori automatikoki itzuliko da, eta horrek ez dio inolako kosturik eragingo erabiltzaileari.

Hasierako erregistro-prozesuan interesdunak ez badu aldez aurretik ordainduko diru-erreserba gisa ezarritako zenbatekoa edota ezin bada egiaztatu, interesdunak ez du inolako ahalmenik izango ibilgailua erreserbatzeko edo erabiltzeko.

Interesdunak aurreratutako zenbatekoak erreserbaren denbora-eremuaren mugak edota erabilera-eremu geografikoa zehaztu ahal izango ditu. Ibilgailuen erabilgarritasunaren zenbatespenen arabera, eta Ibilkari definitu eta aztertu dituen beste balorazio prediktibo batzuen arabera, interesdunaren inguruabar berezietan oinarritutako korrelazio eta kausalitatearen arabera.

Interesdunaren datuak eta ordainketa-txartelaren datuak bat ez badatoz, Ibilkari beretzat gordetzen du pertsona onartzeko erregistroari uko egiteko ahalmena. Nolanahi ere, interesduna edo erabiltzailea izango da sor litezkeen ekintza administratibo, zibil edo penalen erantzule bakarra.

Ibilkari-k erregistratu eta baliozkotutako interesdunak erabiltzaile gisa erreserbatu ahal izango du zerbitzua.

Ibilkari-k erreserbaren iraupena ezarri ahal izango du, erabilera-kopuruaren eta/edo -iraupenaren arabera, gainerako erabiltzaileentzat ahalik eta ibilgailu-erabilgarritasun handiena bermatzeko.

Erabiltzaileak, gehienez ere, zazpi (7) egun naturaleko epean jakinarazi behar dio Ibilkari-ri, info@ibilkari.com helbidean edo +34 689 514 885 telefonoan (Arreta Bulegoan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:00etara) bere nortasun-agiriei eta/edo gidabaimenari eragiten dien helbidearekin edo baldintzarekin zerikusia duen edozein aldaketa, bai eta ordainketa horiek egiteko konpromisoa hartu duen banku-helbideratzeari edo, hala badagokio, kreditu- edo zordunketa-txartelari buruzko datuak ere.

Ibilkari ibilgailuen erabilera partekatuko zerbitzurako alta indarrean egongo da erabiltzaileak alta eskatzeko unean erantsitako gidatzeko lizentzia iraungitzen den egunera arte. Iraungitze kasuan, erabiltzaileak berriro aktibatu beharko du zerbitzua indarrean dagoen gidatzeko lizentzia berriaren kopia info@ibilkari.com helbidera bidaliz.

Gidabaimena galtzen edo kentzen bada, erabiltzailea berehala etengo da Ibilkari zerbitzua erabiltzeko, berreskuratu arte. Berdin aplikatuko da zehapenak gidatzeko debekua dakarrenean.

Erabiltzaileak Ibilkari-ri jakinarazi behar dio, berehala eta inolako atzerapenik gabe, info@ibilkari.com helbidean edo +34 689 514 885 telefonoan (Arreta Bulegoa, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:00etara), gidatzeko eskubideak eten edo mugatu dituela, gidatzeko debeku oro eraginkorra dela eta/edo gidatzeko lizentzia aldi baterako kendu edo atxiki zaiola.

Ibilkari-k beretzat gordetzen du erregistroa ukatzeko eta/edo zerbitzurako indarrean dauden altak eteteko eskubidea, aldez aurretik abisatu gabe. Erabiltzailearen susmoak, jokabideak edota portaerak Ibilkari-rekin eskuratutako kontratu-betebeharrarekin bat ez datozenean, edo emandako informazioa egiazkoa, okerra edota osatugabea denean.

Debekatuta dago erabiltzaileak hirugarrenei Ibilkari-ko ibilgailuak gidatzeko baimena ematea.

Bereziki, eta Ibilkari-k onartu ondoren, erabiltzaileak hirugarren pertsona bat izendatu ahal izango du gidari baimendu gisa, pertsona horrek erabiltzailearekin bidaiatzen duenean eta zerbitzua bere osotasunean gidatzeko betebeharrak betetzen dituenean.

Baimendutako gidariak zerbitzuaren erabiltzaile titularren erantzukizunpean jardungo du, gidari gisa duen betebeharrak pertsonalari kalterik egin gabe. Erabiltzaileak izango du baimendutako gidariari dagozkion erabilera, zerbitzu eta gainerako ordainketa-kontzeptuen ardura.

Hirugarren pertsona gidari izendatzeak berekin ekarriko du gidatzeko lizentziari buruz dituen datu pertsonalak identifikatu eta egiazkoak direla egiaztatzea.

Erabiltzailea enpresa-kontu bati lotuta dagoenean, enpresak, erabiltzaile arduradunarekin batera, modu solidarioan erantzungo dio sor litezkeen kargu edo kalte guztiak ordaintzeari.

3. Zerbitzuaren salneurriak

Erabiltzaileak egunean izan beharko ditu, aukeratutako kontratu motaren arabera, fakturatutako erabilerari dagokion zerbitzu eta kuotak, beti ere, www.ibilkari.com webgunean definitutako Ibilkari-ren salneurrien arabera.

Zerbitzuak ezarritako kuotak urte naturalari dagokio, alta-data edozein dela ere, aurretiazko bajak ez du eskubiderik emango zenbatekoak itzultzeko. Salbuespen moduan irailetik aurrera egingo diren altak zatika egingo dira altagatik kobratzeko, baina inondik inora aurretiazko baja egiteko.

Kuota erregularrak, ibilgailuen erabilerari dagozkion salneurriak eta gainerako kontzeptuak banku-helbideratzearen edota kreditu edo zordunketa-

txartelaren bidez ordainduko dira. Ordainketa batzuk hirugarrenen ordainketa-prozesadore baten bidez egin ahal izango dira (adibidez, Stripe).

Gordailua edo fidantza, onarpen-tasa eta hileko lehenengo erabiltzaile-kuota banku-helbideratzearen edo kreditu-txartelaren bidez, alta izapidetzeko unean bete beharko dira. Zenbateko horiek Ibilkari-ren webgunean jasota daude.

Gordailua edo fidantza, kontratua amaitu eta hurrengo 30 egunetan itzuliko da, eta ordaintzeko dauden zenbatekoak zehaztu ondoren, betiere ordaindu beharko direnak. Bestela, fidantza Ibilkari-ren esku geratuko da, ordaintzeke dauden ordainketak konpentsatzeko. Kontratua azkentzeak ez du ekarriko ordaindutako kuota erregularrak itzultzea.

Kuotei eta salneurriei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta ezazu, mesedez, honako web orri hau: www.ibilkari.com, bertan aurkituko dituzu xehetasun guztiak.

4. Ordaintzeko modua

Egindako bidaiak ordu-salneurria (orduak eta egunak) eta kilometro-salneurriaren arabera fakturatzen dira. Oro har, fakturak hileroko egingo dira, baina Ibilkari-k ordainketa eskatzeko eskubidea izango du hileko epea amaitu gabe.

Ordainketa erabiltzaileak adierazitako kreditu edo zordunketa-txartelarekin egiten bada, automatikoki eta bi alditan egingo da: erreserba-denborari dagokion kostua ordainduko da lehenik, denbora hori berretsi ondoren; eta erabilera amaitzean, geratzen den zenbatekoa ordainduko da, zerbitzuaren erabileraren guztizko zenbatekora iritsi arte. Ibilkari-k ordainketa guztiak kudeatu ahal izango ditu hirugarrenen ordainketa-prozesadore baten bidez (adibidez, Stripe).

Edozein arrazoiengatik (iraungitzea, likidezirik eza edo beste edozein arrazoi) ezin bada dagokion kobrantza egin. Erabiltzailea izango da denboran eta forman erregularizatu gabeko zenbatekoen erantzulea. Kasu horretan, komenigarriagoa iruditzen zaion beste ordainketa-modu bat emateko eskatuko da.

Ibilkari-k beretzat gordetzen du zor duen zenbatekoari % 1,5eko erretegia aplikatzeko eskubidea, bai eta ez ordaintzearekin lotutako banku edita administrazio-gastuak atzerapenean jasanarazteko eskubidea ere, epaitegietakoak eta legezko ordezkariaren arrazoizko ordainsariak, abokatuak, prokuradoreak eta abar barne, diru-zor nagusia eskatu edo berariaz jakinarazi beharrik gabe.

Erabiltzaileak edozein faktura ordaintzen ez badu, berehala etengo da erreserba berriak egiteko eskubidea, eta bertan behera utziko dira oraindik kontsumitu ez diren edo egiten ari diren erreserbak, erabiltzaileak berak edo hark baimendutako gidariak egindakoak. Neurri hori mantendu egingo da erabiltzaileak bere egoera erregularizatu arte.

Ez ordaintzearen ondoriozko administrazio-kudeaketak edo, hala badagokio, Erabiltzailearen Gidan ezarritakoaren arabera aplikatzekoa den beste edozein gorabeheraren ondoriozko bidaien eta errekgarguen edo gastuen xehetasunak posta elektronikoz bidaliko dira fakturarekin batera, erabiltzaileak berak emandako helbidera.

Fakturaren zenbatekoa jaulkipen-egunetik bost (5) egun naturaleko epean ordainduko da. Emandako kontuari dagozkion ordainagiriak helbideratuz. Ordaintzeko modua kreditu edo zordunketa-txartela erabiltzea bada, zerbitzua amaitu eta hurrengo egunetan egindako erabilera bakoitzeko egingo da faktura.

Erabiltzaileak ez du inolako eskubiderik zerbitzua hasi ondoren uko egiteko (ezta partzialki ere). Erreserbaren hasiera ibilgailua irekitzen denetik interpretatuko da, eta itxierarekin amaituko da, BO eta/edo Erabiltzailearen Gida hauetan deskribatutako baldintzetan.

5. Kontratuaren iraupena eta ebazpena

Zerbitzuaren kontratazio-aldia urtebetekoa da, alta izapidetzen den egunetik aurrera. Kontratua automatikoki berrituko da ondoz ondoko urtealdietarako (urte 1), salbu eta kontratua suntsiarazten bada jarraian aipatzen diren arazoietako batengatik.

Erabiltzaileak kontratua baliogabetu ahal izango du posta elektronikoz idatziz jakinarazita, zerbitzutik baja eman nahi duela, kontratua berritu baino hilabete bat lehenago gutxienez.

Zerbitzua erabiltzean metatutako gastuaren zenbatekoa fidantzarena baino handiagoa bada, Ibilkari-k, aldeztu aurretik jakinarazita, ibilgailuak erabiltzeko baimena behin-behinean eteteko eskubidea izango du, desoreka edo aldea erregularizatu arte. Ibilkari-k beretzat gordetzen du, halaber, ibilgailuak erabiltzeko baimena aldi baterako eteteko eskubidea, edo, erabiltzaileak kontratu-baldintzaren bat betetzen ez badu, kontratua behin betiko suntsiarazteko edo ezbehar-tasa handia erregistratzeko eskubidea.

Erabiltzaileak zor dituen edota jokabide orok berekin ekarriko du erabiltzaile gisa dituen eskubideei berariaz uko egitea eta mugarik gabe etetea.

Kontratua iraungiz gero, erabiltzaile-txartela desaktibatuko da, ibilgailuak erabiltzeko baimena kenduko da eta dagoeneko egin diren edota oraindik egiteke dauden erreserbak baliogabetuko dira.

Kontratua azkentzen denean, Ibilkari-k gordailua edo fidantza itzuliko dio erabiltzaileari, erregularizatu gabe egon daitezkeen zenbatekoak zehaztu ondoren. Zenbateko horiek normalizatuta egon beharko dute beti. Bestela, fidantza Ibilkari-ren esku geratuko da, ordaintzeko dagoen zenbatekoa eta administrazio-izapideei lotutako gastuak konpentsatzeko. Iraungitzeak ez du ekarriko erabiltzaileak ordaindutako kuota erregularrak itzultzea.

Etenaldia edo ebazpena erreserba-aldi batean jasotzen bada, epealdi hori amaitzean sartuko da indarrean, baina bazkideak ezin izango du uneko erreserba-aldia luzatzeko edo bestelako luzapenik eskatu.

6. Datuen babesa

Ibilkari-k ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko ezinbestekoak diren datu pertsonalak baino ez ditu izango, betiere gardentasunez eta konfiantzazko datu pertsonalak errespetatuz. Datu horiek fitxategi batean bilduko dira, eta fitxategi horren arduraduna (Mugikortasun Kudeaketa Zerbitzuak - Servicios de Gestión de Movilidad SL) empresa bera izango.

Datu hauek, erabiltzailearen eta Ibilkari-ren arteko kontratu-harremanak mantentzeko eta betetzeko beharrei erantzuten die, eta enpresaren beraren zerbitzu eta jardueri buruzko informazioa ematen jarraitzeko.

Litekeena da Car Sharing erabileraren barruan, erabiltzaileak helaraz diezazkigukeen arau-hausteei, parteei, istripuei eta abarri buruzko informazioa landu behar izatea. Datu horien tratamendua osasunari dagokiona da. Alde horretatik, erabiltzaileak baimena ematen du Mugikortasun Kudeaketa Zerbitzuak - Servicios de Gestión de Movilidad SLri aseguruia kudeatzeko beharrezkoak diren datuak lagatzeko.

Halaber, lapurreta gertatuz gero, eta kasu horretan bakarrik, Ibilkari-k erabiltzaileari buruzko informazioa partekatuko du Ertzaintzarekin eta lapurtutako ibilgailua berreskuratzeko informazio hori behar duten beste agintari edo enpresekin.

Erabiltzaileak baimena ematen du Ibilkari-k bere datu pertsonalak eman diezazkion baimendutako erabiltzailearen edo gidariaren zorra berreskuratzeko eskatzen den erakunde edo organismo orori, ondare-kaudimenari buruzko datu-baseetan eta/edo beharrezkoak diren antzeko beste batzuetan sartzea barne.

Erabiltzaileak Ibilkari-ri emandako informazioaren eta dokumentuen egiazkotasuna bermatzen du. Eta kontratu hau eteteko edo baliogabetzeko

eskubidea gordetzen du, agiri faltsuak edo informazio osatugabeak eta/edo zehaztugabeak izan daitezkeelakoan.

6.1. Datu pertsonalen aldaketak

Erabiltzaileak, 7 egun naturaleko epean, bere datuen edozein aldaketaren berri emateko konpromisoa hartzen du.

Erabiltzaileak emandako datuak kontsultatu, aldatu edo, hala badagokio, ezeztatu ahal izango ditu Ibilkari-ra joz, info@ibilkari.com helbide elektronikora mezu bat bidaliz.

7. Aplikatu beharreko legea eta jurisdikzioa

BO honetan eta Erabiltzaile Gidan ezarritakoa Espainiako legediaren arabera arautuko da, eta legeria horretan ezarritakoaren arabera aplikatuko da.

BO edota Erabiltzaile Gidan jasotako edukietan ezarritakoa interpretatzeari, betetzeari edo betearazteari buruzko kontratu-desadostasun oro epaitegiek eta auzitegiek ebatziko dute, Ibilkari-ren helbide sozialaren egoitzarekin bat etorriz.

BO edota Erabiltzaile Gidan hauetan dauden terminoak eta baldintzak euskaraz eta ingelesez ere dauden arren, desadostasunik izanez gero, Espainiako bertsioa nagusituko da.

8. Erantzukizunetik salbuestea

Erabiltzaileak onartzen du Ibilkari-k ez duela bere gain hartzen adierazpen gisa eta ez mugatzaile gisa sor daitezkeen kalteen erantzukizuna:

- ✿ Akatsak edo gainkargak direla-eta Internet sarean gerta daitezkeen atzerapenak edo blokeoak, bai eta gure edo hirugarrenen sistema edo bitarteko teknologiko/elektronikoek sortutakoak ere.
- ✿ Zerbitzua emateko edo sartzeko ezintasuna egozgarria ez zaion edozein kanpoko arrazoiengatik: interferentziak, omisioak, etenak, birus informatikoak, matxurak eta/edo deskonexioak sistema elektronikoen funtzionamendu operatiboan edo erabiltzaileen aparatu eta ekipoen funtzionamenduetan.
- ✿ Zerbitzuaren edozein funtzionamendu ezohikoa, haren kontrolatik kanpo dauden arrazoiengatik edota erreserba gauzatzea eragozten duten arrazoiengatik. Zerbitzuaren ezohiko funtzionamenduetatik, haren kontrolatik kanpo dauden eta erreserba gauzatzea eragozten

duten arrazoiengatik. Ezohiko funtzionamendutzat jotzen da erreserben jaulkipen okerra edo edozein motatako akatsekin.

- ✿ Interferentzia atmosferikoak, baldintzak edo oztopo topografikoak.

9. Baldintza orokorrak aldatzea

Zerbitzuaren bilakaeraren eta eskakizun teknikoen arabera, Ibilkari aldaketak egin ahal izango ditu bere BOtan eta ibilgailuak erabiltzeko Erabiltzailearen Gida edo arauetan.

Ibilkari-k eskubidea du edozein unetan BO hauek egokitzeko edo aldatzeko. Aldaketa horiek behar besteko aurrerapenez jakinaraziko zaizkie erabiltzaileei.

BO edota Erabiltzailearen Gida aldatzearen edota eguneratzearen ondorioz sortzen diren baldintza edo bertsio berriak erabiltzaileek kontsultatzeko edota deskargatzeko gaituko dira www.ibilkari.com webgunean.

Aldaketa berritik aurrera, zerbitzua erabiltzeak berekin ekarriko du BO berriak edota Erabiltzailearen Gida osorik eta inolako salbuespenik gabe onartzea.